

## Madagaskar eta Kubako jantzak Areatzan

Andra Mari jantza talde galdakaoztarrak 39. Folklore Bizian jaialdia antolatu dau eta aurten be dakarrez munduko jantzak Areatzara. Hilaren 18an egongo dira Andra Mariko, Kubako Compañía Folclórica Camagua eta Madagaskargo Benja Gasy talde folklorikoko musikari eta jantzariak uribilduan. Benja Gasy 1998an sortu zan, Madagaskar irlak batzean dauzan kulturen ikerketa baten ostean eta Compañía Folclórica Camagua barriz Kubako Camagüey urian sortu zan 2011n. **13. orrialdea**



## Lemoa saninazioetan, hilaren 30etik abuztuaren 2ra



Lau egunez ospatuko dira Lemoako jaiak, garagarriari agur esan eta abuztuari ondoetorria emoteko. Ohiko egitaraua antolatu da Koma, Nafarroa 1512, Puro Relajo eta beste talde esanguratsuen kontzertuakaz lagunduta. Aurreko egunean be, txupinazoaren bezperan, ospatuko da jaitxo. **5. orrialdea**

## Itxaso Arandia, Europako OCR txapelduna

**2** 5-29 urte bitartean, igorretarrak OCR oztopo lasterketetako txapelketea irabazi eban maiatzean Irunen. Oin, bizitako esperientzia kontau, kirol ezezagun honen gainean gehiago jakin eta bere etorkizunerako asmoen gainean berba egiteko tarte izan dogu beragaz. **8. eta 9. orrialdeak**



### ARTEA

## Communia jardunaldiak bueltan dagoz Basoan

Garagarriaren 23tik 26ra, Communia berbaldi-zikloaren hirugarren edizioa egingo da Artean. *Politikaren hondamendiaren garaian eta Klase-borroka eta borroka klaseak blokeetan dagoz banatuta berbaldi eta eztabaidak eta aisi-eskaintzea be egongo da.* **6. orrialdea**

### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Auzoak bizi-bizi datoz hileon

Garagarri ospakizunez beteta dator. Areatzako Santo Tomas, Igo-reko San Kristobal, Ubideko madalenak, Dimako Lamindao, Santiago eta Artaun, Zeberioko Upo, Argiñao eta Undurraga, santamañeak eta santiagoak Artean, Lemoako Arrañon eta Zeanuriko Ipiñaburun zein Otzerinmendin egingo dira jaiak. **7. orrialdea**

### ARTEA

## Zabaltzear dago Ailarak



Ailarak-Musiktopa zentro barrian, lehenagoko Ekomuseoan hasi dira daborduko lekua eta erakusketa iraunkorra ikusteko bisita gidatuak egiten aste-goienetan. Horrezaz gainera, taberna garagarri hasikeran zabalduko da. **12. orrialdea**

**30** EGOITZA  
EGUNEKO ZENTROA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

ARRATIAKO EGOITZA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA

Gizarte- eta osasun-arreta jarraltua eta pertsonalizatua

IBARRA AUZOA, 17 DIMA

94 631 57 76

# Literatura txokoa

## DENA ZULO BERA ZEN

Sei ipuinez osotuta dago *Dena zulo bera zen* liburua. Narrazioen luzeereak istorioei nobela laburraren antza emoten deutse. Istoriok estilo patxadatsuan idatzita dagoz eta zehetasun sotilez beteta dagoz. Bakotzak giro eta personaia berezkoak daukaz, baina istorio guztietan pertsonaien hutsuneak, bildurrak eta gabezia intimoak antzekoak dira.

Liburua *Kanikula* istorioagaz hasten da. Bertan kontetan da zelan andrazko heldu batek gizon gazteagoa ezetuten dauan eta zelan haregaz "erlazino bat", behintzat sexuala, hasten dauan, baita hartu-emon horrek zelan eragingo dauan betiko bikote hartu-emonetan be.

Bigarren istorioa *Itsasoak eta*

*hondakinak* dogu. Bertan neska gazte bik laguntasuna partekatzen dabe, amaitu bako etxe baten hazurdura eta zeozer gehiago.

*Zuloa-k*, hirugarren istorioa danak, agerian ixten dau bikote baten proiektu komunak zer ostenduten dauan, ondo jakin barik protagonisten asmoa zertan dan.

*Ahate bihotz* istorioan kontetan jaku zelan guztiz desbardinak diran familia bi alkartzen diran baten etxean bazkaltzeko. Atzanean agerian gelditzen da usteak, familia batek besteaz pentsetan dauana, ez datozela bat errealdadeagaz.

*Urpekaria* andra eta gizon baten hartu-emonen porrotaz jabilkun istorioa dogu.

Atzen kontaketeak, *Kratera-k*,

heriotzearen aurrean dagozan andra biren bizipenak dakarzkuz.

Liburua kanpoko gertakari handiengandik aldentzen da baina pertsonaien "ohiko" normaltasunaren azpian usteltzen diran ezinegonak eta hartu-emon gatazkatsuak barne minetan aurrez murgiltzen dira.


Ipuinen amaierak irekiak eta zehaztubakoak dira. Horregaitik, istorioen amaieran pertsonaiaren aldaketea ez da oso agerikoa izango, ezkutuan eta isilpean izango diralako horreek aldaketok, baina, ezer ez aldatu barik dana aldatu dala dirudi narratzen. Pertsonaien arteko hartu-emonak be aldatu dirala igarten dozu, berba asko esan barik lotu diran arren.

Idazlearen bosgarren narrazio liburu da hau. Eider Rodriguezek lan literario oparoa dauka: lan grafikoetarako gidioak, nobelak, ipuin liburuak, saiakerak, umeentzako literatura, baita genero epistolarra be.

Idazleak be sari garrantzitsu batzuk irabazi izan dauz, esaterako, Euskadi Saria 2018an, eta esku artean dogun liburuagaz Espainiako kritikearen saria euskerazko narratiba arloan 2026an.

Liburua interesgarria eta atsegina da irakurteko. Literatura serioa eta goi-mailakoa begitantzen jat. Irakurten gozatuteko baino zeozer gehiago.

**Ane Miren Rilo**



**Eider Rodriguez**

*Dena zulo bera zen*

**Susa Literatura argitaletxea, 2025**

**196 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

### Bagilaren 29tik garagarriaren 5era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

### 22:00etatik 09:00etara

Melero (27-03). Amorebieta-Etxano.

### Garagarriaren 6tik 12ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

### 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa (04-10). Amorebieta-Etxano.

### Garagarriaren 13tik 19ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Saillburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

### 22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga (11-17). Amorebieta-Etxano.

### Garagarriaren 20tik 26ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

### 22:00etatik 09:00etara

Gutierrez (18-24). Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

### Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.  
Tel.: 94 449 05 87

### Medikuak

**Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,**

**Igorre eta Zeanuri:** 94 600 74 63

**Bedia eta Lemoa:** 94 600 68 85

**Ubide:** 945 45 50 17

**Zeberio:** 94 500 67 95

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

**Mankomunitatea** 94 631 17 17

### Gorbeialde Landa

**Garapenerako Elkarteak**

94 631 55 25 / [gorbeialde@gorbeialdea.com](mailto:gorbeialde@gorbeialdea.com)

**Gertu bulegoa Igorre** 94 406 80 00

**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea** 94 673 62 51

[kulturetxea@igorre.net](mailto:kulturetxea@igorre.net)

**Lemoako Kotxepin Kultur Etxea**

[kotxepin@lemoa.eus](mailto:kotxepin@lemoa.eus)

**Euskotren** 94 433 33 33 / [euskotren.eus](http://euskotren.eus)

**Areatzako Notarioria** 94 673 92 26

**Errota** 688 854 543 / [info@errota.eus](mailto:info@errota.eus)

**Arratiako Musika Eskola**

94 631 73 52 / [www.arratiakomusikaeskola.eu](http://www.arratiakomusikaeskola.eu)

### Bizkaibus 94 612 55 55

#### 3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

#### 3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

#### Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara

orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik 21:10era

orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro.

Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

#### 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

#### 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera:

06:45etik 20:45era bi ordukin behin.

**Ubidetik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik

20:45era bi ordukin behin. Jaiegunetan: 08:45etik

20:45era bi ordukin behin.

\*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan diran

zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

#### 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta

08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan

ez dago zerbitzurik.

#### 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan:

07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*, 14:10, 15:00,

16:10, 18:30\*, 20:20.

\*Basauriraino bakarrik.

**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20.

\*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan:

07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30,

16:30, 19:40, 20:40.

**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

**Ugaotik Arteara.** Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan:

07:55ean.

**Ugaotik Igorrera.** Lanegun eta zapatuetan:

07:20ean.

**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriagatik Zeberiora.** Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

#### La Union 94 427 11 11

#### A3712 linea. Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: 06:45ean urtetan dau Bilbotik.

Zapatuetan: 08:45ean urtetan dau. Domeka eta

jaiegunetan: 10:30ean urtetan dau.

#### A3712 linea. Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: 15:15ean urtetan dau Gasteizetik.

Zapatuetan: 16:30ean urtetan dau. Domeka eta

jaiegunetan: 16:30ean urtetan dau.

#### Eskualdeko garraioa. Erreserbak

**945 18 20 60**

#### 6A linea. Otxandio-Legutio

Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean,

09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean

eta 20:25ean. Astegoi eta jaiegunetan:

08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

#### 6A linea. Legutio-Otxandio

Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean,

14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta

21:15ean. Astegoi eta jaiegunetan: 10:35ean,

13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkarteak. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea.

**Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). **Webgunea:** [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus).

**Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:**

[inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus). **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923.

**E-posta:** [asierabrisketa@begitu.eus](mailto:asierabrisketa@begitu.eus). **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager

Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112.

**E-posta:** [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:**

Araitx Zapiko (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Xabier Gorostiaga (Arantzazu, Areatza

eta Artea) Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz

(Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa

inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus,

**Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-

eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu

daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatutako lizentziaren*

*bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean

komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza

aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



### Babesleak:



## ZEURE BERBEA

### Igorren adinbako baten aurkako sexu-erasoari buruzko barriaren harira

Lehenik eta behin, gaitzespenik irmoena adierazo gura dogu eta alkartasuna eta babes osoa helarazo gura deusaguz erasotua izan dan personeari eta bere familiari. Guk sinisten zaituegu!

Kasu hau ez da gertakari isolatu bat, gure jenteartean oso zabaldua dagoan errealidade baten isladea baino. Ikusi gura ez dogun errealidade gordin bat da. "Behatzen doguna bakarrik ikusten dogu, eta gure gogoan dagoenari bakarrik behatzen deusagu" (Alphonsine Breton). Izan be, ez da detektetan begiratzen ez dakigulako. Kasuen % 3-9ak profesional bateri kontatuak dira, % 4-7ak salatu edo notifikatutakoak eta honeetatik gehiengoak, daborduko helduak izanda kontetan dira (% 42-75) edo inoz kontau bakoak (% 28-60). Hamarretik bat baino gitxiago dira salatzen dabena.

Ume bat zaintzea komunitate osoaren erantzukizuna bada, zelan begiratu daikegu beste alde batera holako gertakari baten barri izatean? Zelan abandonau daikeguz gure ume eta nerabeak egoera lazgarri horren aurrean? Gure ahaideen artean zaurgarrienak diran horreek holango abusuak bizi izan dabezala onartzea gogorregia egiten jakulako? Edo abusatzaileak gure lagun, ahaide zein komunitateko kide dirala onartezina egiten jakulako?

· Prebalentzia, orohar bost haurretatik bat izaten da: lau nesketatik batek eta zazpi mutiletatik batek jasaten ditu sexu-abusuak, gehienetan 13 urte bete orduko. Datuak ikaragarriak dira!

· Abusuaren iraupena batez beste lau urtetakoa izaten da, modu kronikoan eta kontaktua mantenuz.

· Abusatzaileen % 80a familiakoa edo inguru hurbilekoa da.

· Abusatzaile gehienak ezkontuta dagoz (% 83,3ak bikote-harreman iraunkorra izaten dau), gizartean ondo integratuta dagoz eta kualifikatutako profesionalak izan ohi dira. Ez daukie buru osasunari jagokan diagnostikorik ez eta aurrekari polizial ez judizialik be ez. Abu-

satzaileak ez dira imajinetan doguzan munstroak! Orokorreran persona azkarrak eta manipulatzaileak dira, ondo dakie zer egiten dabena. Euren jardueran ez dago kontrolaezina dan bulkadea, ondo planifikatutako estrategia baizik.

· Adin txikiko personon kontrako sexu-abusua ez da sexu-oldarkotasuna, podere-abusua baino.

· Eremu profesionaletatik eraso jasan dauan personea babesteko joerea oso eskasa da: laguntzea eskatu ebanen % 70ak ez eban ezelango laguntzarik jaso eta eskolan abusuak ezetutera emon ebezanen % 85ean, eskoleak ez eban babes-sistematik martxan ipini.

· Bikimizauak izan diran sei personatik batek bakarrik sentiduten dau sinetsi eta lagundu jakola; horren ondorioz, lautik batek atzera egiten dau bere adierazpenean, eta erdia baino gitxiago leitekez barriro salatzeko prest agertuko litzatekezanak. Ikusi danez, esku-hartze juridiko-instituzionala traumatikoa gerta daiteke eraso bera baino!

· Dana dala, ordu biro ume/nerabe baten kontrako sexu-eraso bat salatzen da estatu espainolean. Euskal Herrian, salatzen diran sexu-erasoen erdiak, ume/nerabeen kontrako kasuak dira, aspaldiko urteetatik hona!

· Euskal Autonomia Erkidegoan salatzen diran kasuen % 90a epaiketara iritsi orduko ixten da! (Estaduko batez bestekoa % 70ekoa da).

Zabal daiguzan begiak! Entzun daiguzan isiluneak! Babes daiguzan gure ume eta nerabeak!

#### ARRATIAKO MUGIMENDU FEMINISTA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derriogorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hau xe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

#### BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA



### KAREN LUYCKX

Banka Armatu bako Arratia taldeko kidea

### Gerra eta genozidioak finantzatzeari ez, konplizidade bako udalak gura doguz

**A**skotan Israeleri boikota egin behar deusagula esaten da. Ez da erraza, baina ondo bideratutako presino publikoa eraginkorra izan daiteke. Adibidez, Veolia enpresea Israelgo proiektuetatik erretirau zan, presino publikoko kanpaina baten ondorioz. Beste adibide garrantzitsua apartheidaren kontrako mobimentua da, Hego Afrika askatzen lagundu ebana.

Boikot personala egiteko hainbat aukera daukaguz: Coca-Cola, McDonalds, AirBnb eta Booking, besteak beste, saihestu daikeguz. Halanda be, hainbeste aukeragaz ez gagoz seguru boikot zabala eraginkorra dan ala ez.

Eraginkorra izateko oso boikot zehatza eta enfokaua izan beharko litzateke. Zalantza barik, gaur egungo egoeratik gehien aberasten diran enpresak armak ekoizten dabezanak dira. Gainera, estatu espainiarra mundura arma gehien esportetan dauzan hamar herrialdeen artean dago.

Putinen mehatxuari jagokonez, 2024an Europar Batasuneko 27 estaduek 368.504 milioi dolar gastau ebezan defensan; Errusiak barriz, 149.000 milioi dolarreko aurrekontu militarra eukan. Orduan, Errusiaren aldean bikotxa baino gehiago gastetan dogula jakinda, zein da gehiago gastetearen zentzua?

Dana dala, ezin deusagu armagintza-enpresei boikota egin, ez garalako euren bezeroak.

Zorionez, zeharbidezko aukerea daukagu: finantza-sektorea; armagintza-enpresek finantza-zerbitzuak behar dabezalako.

Estadu espainiarreko bankuek armetan egindako inbersino guztien % 80a baino gehiago BBVArenak eta Santanderrenak dira. Gainera, BBVAk, Santanderrek eta Caixabankek 4 mila milioi dolar

inguru Palestinako populazi-noaren aurkako erasoetan erabilten diran bonbak eta armak fabriketan dabezanak finantzatzeten ditue.

Kutxabank, bere aldetik, CAFeko akzinodun nagusia da. Nazio Batuen Erakundearen arabera, euskal enpresea dan CAF munduan genozidioarengandik aberasten diran enpresa nagusietako bat da. Gainera, Kutxabank banka armatuaren bosgarren postuan dago Estaduan. Oso puntuazio altua da, kontuan hartuta eskualdeko banku txiki bat baino ez dala.

Bankuek armen merkatariztan dabena paperera bueltan, armen enpresen atzerriko bezeroak askotan gobernuak dira eta gobernuak oso epe luzeetan ordaintzen dabe. Hortaz, kreditu berezi barik, ia ezinezkoa litzateke armarik esportetea.

Finantza etikoak ostera, edozein prezioaren truke onurak maximizetatik urruntzen dira eta gizartean eta ingurumenean eragin positiboa sustatu gura dabe. Gardentasuna printzipio garrantzitsua da. Adibidez, Fiare Banka Etikaren eta Triodos Bankuen webguneetan banku horreen kreditu guzti-guztiak ikus daikeguz.

Zure egoera personalak horretarako aukerea emoten badeutsu, aldatu bankuz. Baina, oso konziente gara ez dala erraza norberaren ondasunak kudeatuko dituan bankuz aldatzea. Beraz, gure proposamena gure udalei finantza etikoetara alda daitezela eskatzea da.

Euskal Herrian, oin dala hamar urte baino gehiago Donostiako eta Azpeitiako udalek, eta beste batzuk, Fiare Banka Etikako bazkide egin ziran eta hainbat finantza-zerbitzu kontratau ebezan eurekaz. Katalunian be, zenbait udalek, Bartzelonakoak barne, banka armatu bako eta finantza etikoaren aldeko udallerrien protokoloa onartu dabe.

Arratiako udalak be, finantza etikoetara pasau leitekez egungo bankuek finantzautako ankerkerietan konplizidadea saihesteko. Pausu esanguratsu hori emotera ausartuko baginateke, arratiar izateaz harro egoteko errazoi sendoa sentiduko geunke.

Informazio gehigarria: [bancaarmada.org](http://bancaarmada.org) eta <https://www.setem.org/euskadi/eu/berriak/gerra-hemen-hasten-da-mapak/>.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## ALKARREGAZ



### Suzien Mendi Kluba

2012an jaio zan Suzien Mendi Kluba, ilusinoz, beharrerako gogoz eta Gorbeianagako maitasunetik. Hasikeratik argi izan genduan helburua: Gorbeia Suzienegaz Zeanuri munduko mendilasterketen mapan kokatzea, gure herria, gure ingurunea eta gure izaerea ezetuarazotea. Gorbeian bizipen berezi bat eskaini gura genduan, naturearenganako errespetuan, ahaleginean eta komunitatearen indarrean oinarrituta.

Urtez urte, amets ha errealidade bihurtu da. Tokiko ekimen apala izatetik Munduko Txapelketaren egutegiaren parte izatera helduta. Baina ez da eliteko kirolarien lasterketa soila, hau herri oso baten proiektua da. Zeanurik egun horreetan bere atea zabaltzen deusiez bisitarietara, eta herri osoak parte hartzean dau antolaketan, 300 boluntariotik gora.

## LUMATUTEN



## IXONE AROMA

**Barauskarrie**

**G**ure aitte 9 urte gaz hasi zan txistua jotzen. Durangon jaio eta hazia, inguruotan be ibilitakoa da tanbolinteru. Artean jote-ko kontratau ebenean, kanposantu zaharraren ondoko landan kanpindendea ipini eta beste lagun bigaz batera hiru bat egunez egon ei zan bertan. Goizeko kalejirea hasi orduko anisa edo solisonbrea eskaintzen eutsiela kontau izan deusku sarritan, “esker-rrak galletaren bat be ateraten euskuen, *barauskarrie* deitzean eutsien”.

Ni bizi nazan etxean be ohi-tura hori ei eukan aitexeak. Oingo txistularieri ez dakit anisik edo bestelakorik ateraten jakien, etxetik baraurik ez dabela urtengo pentsetan dot. Ala bai? Uste doguna baino zabalduago ete dago Arratian baraua egiteko ohiturea?

Intermitentea deitzean dana egiten dauan banakaren bat ezetuten dot, 12 edo 15

ordu jan barik egotea ona dala-ta. Baina badirudi ez dirala gitxi moda edo dana dalako hau segiduten dabenak eta ordu luzez jan barik egoten diranak, hamaiketakoari ezeze, merienda-afari edo afari-meriendeari be barauskarri esaten deusie-ta.

Gureak diran berbak erabilttearen aldekoa nazan arren, pentsetan dot lartxo jotzen dogula berezi edo desbardin izan gurera, eta beti ez dogula asmatuten. Berbategian irakurri leitekenez, “baraua hausteko janari edariak...”, “ermitetako jai eguneko gosaria...” eta “goizeko anis kopatxoa gailetakaz” dira barauskarriaren hiru sarrerak.

Rekalde eta Larreak itxi deuskuen lan mardul eta ederrean jasota dagoazan berbak erabili daiguzan, holan mantenduko dira bizirik-ta. Baina erabili daiguzan patxadaz.

## ZERTZEAN



## ALVARO RABELLI

**F**amilia on guztietan ezin da kondaira onik faltau, bueno, familia guztiek eukiko dabe gertaera epikoren bat gogoratzeko, txikia edo handia, senideen arteko oturuntzetan gero eta puztuago, gero eta heroikoago bilakatzen dan gertaerea. Gertaerok ardao ondua modukoak dira, denporea igaro ahala hobeak izaten dira. Baina badaukie arazo bat, arazo eder bat inondik, sarritan gurariaren fikzinoak izaten dira, ez benetakoak, asmatuak baino. Gertaera hutsal batetik gauza gara egundoko istorioak asmatzeko, istorio ezinago ederrak.

Gurean badabil halango bat ahorik aho, 34ko urri bigarreneko iraultzan aitita zanak eta anaia-arrebek egin ebezan balentriak zerikusia dauka. Kontua zera da, familia on guztietan be jasoten dan lez, errepublikearen sasoi haretan aititak eta bere anaia-arrebek hainbat alderdi politikotan iharduen militante. Aitita, Basauriko San Pedro meategiko urketaria izanik, militante sozialistea zan; anaia oster, familiaren deskontsolamenturako, CNT-ko anarkistea, hainbat urte geroago Frantziako erresistentziako heroia izan zana. Hori baina, beste kondaira bat da. Arrebek euskal sindikatu abertzaleak kideak ziran.

Urri bigarreneko egun haretan, bada, hilari bost kendu eutsienean, danek kalera jo eben, Bilboko

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidean.

**Kondaira**

San Frantzisko kaleko espaloi eta bazterretara. Eurak be etorri ziran aldats behera, goiza sorbal-dan eta pikotxa gainean. Oilaritatea urdindu baino lehen abiatu ziran Asbaltza eta Ollarganeko meategietatik. Karbuero kruseluak eroazen argitan, eta ingurumariko oilarrak bat-batean iratzarrita, egun-sentia aurreratu eben kirikiko ozenez, eta orduan ikusi ebezan aitarenka inguruko agureak, eta atso bat begira lotu zan Zeanuriko erreka nagusian sortu zan mareara, jakin barik Undurragak presea zenbait urte geroago arte ez zala egingo, eta abade batek hirugarrenez doministiku egin eban. Bilbora heldu ziranerako iraultza zabaltzen eban Asturiaseko dinamita baino ez eukien gogoan. Eta batzarra egin ostean huelgeari ekin eutsen, benetako huelga iraultzaileari. Eta langile guztiek bakar batek lez erantzun eben. Pariseko maiatzako iraultzan askatasuna asfaltopetan baegoan, egun haretan Bilbon azal-azalean egoan, kaleko galtzadarrietan letra handi-handiaz idatzita. Baina iluntzerako aitita eta anaia preso egozan guardia zibilen eskuetan. Horixe da txikitatik familia bazkarietan entzun izan dogun istorioa. Baina egia esan, gauzak ez ziran holangoak izan, atxilotu bai atxilotu egin ebezen egun haretan. Arrebek emondako sindikatuaren diruagaz joan ziran San Frantzisko kaleko putetxe baten atxilotu ebezen, zerako zeraren puntan purgazioen azkurea derrepentean sentidurik zoro parean deiadarka hasi ziralako. Egunduan haretan nor edo nor ahalegindu zan iraultza benetan egiten.

## BEGI TXINDORRA

**G**aragarriaren 8a Nazinoarteko OVNIen (euskeraz OHE, Objektu Hegalari Ezezaguna) Eguna ospatuten da eta badago zurrumurrua, aurtengoan bai, honeen existenziaren gainean zezer jakingo dogula. Mark Christopher Lee zinemagile britainiarraren esanetan, “Etxe Zuri barneko iturri batek” aurreratu deutso, egun horretan Donald Trump presidenteak adierazpen instituzional publiko bat egingo dauala “adimen ez gizatiarraren” inguruan. Adierazpen honek, jarraipena emongo eutsan aurtan Pentagonoak egin dituan dokumentuen desklasifikazio-kolpe biei eta zurrumurruek dinonez, Trumpen adierazpenak bide barri bat zabalduko eutsan gizadiari. Ez gagoz bakarrik. Ez uniberso mailan, baizik eta Lurrean. Kenduko al dau akaso Trumpek, bere silikona laranja maskara motz hori, eta erakutsiko al dau bere benetako arpegi “reptilianoa”?



Adimen Artifizialagaz egindako irudia.

**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17    Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24    Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejota Zerbitzu 100  
R.P.S. 31/06

LEMOA

## Lemoatx Guraso Elkarteak botako dau jaietako txupinazoa

Garagarrilaren 30ean botako dau 50 urte bete dituan alkarteak txupina, baina bezperan be egingo da jaitxoa.



### Asier Abrisketa

Lemoako San Inazio jaiak hilaren 30ean, eguena, hasiko dira ofizialki Lemoatx J.B. Eguzkitza Meabe IPlko Guraso Elkarteak bere 50. urteurrena dala-ta botako dauan txupinagaz. Tradizinoa danez, jarraian urtengo da mozorroen desfilea udaletxetik lau egunez jaigune nagusia izango dan Elizondora. Lemoako Jai Batzordeak ohiko jai egitaraua prestatu dau: kuadrillen afaria, San Inazioko mezea eta jantzaldia, Lehiaketa Gastronomikoa, antzerkia, Playback Lehiaketea, txarangea eta beste.

Musikeari jagokonean, Koma 1995ean sortutako talde iruñear mitikoa eta euskal punkoi-aren gaurko erreferentetako bat dan Nafarroa 1512 egongo dira eta horreez gainera, Alarma Morea, Maruxak, Puro Relajo, Ganibet, Kak!, Ma-

ria Vaquerizo zein Altxa Porru eta Iraultza erromeriak.

### Garagarrilak 29, eguaztena

17:00etatik 18:00etara, txupinazo eguneko Mozorro Lehiaketarako izen-emotea. Gaia: laranja kolorea.

21:30ean, herri afaria.

Afalostean, binilo pintxadea: Pantx Records vs. Mangual.

### Garagarrilak 30, eguena

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea.

19:00etan, txupinazoa.

Gero, mozorroen desfilea.

21:00etan, 18 urtez azpiko kuadrillen afaria.

22:00etan, kontzertuak: Alarma Morea, Maruxak eta DJ Ima.

### Garagarrilak 31, barikua

11:30ean, XXVIII. Artisautza Azokea.

12:00etan, mezea San Inazio ermitan.

Gero, Durundi Barri Dantza Taldearen jantzaldia.

13:00etan, 18 urtez azpikoentzako Igel Txapelketea.

13:30ean, 18 urtez gorakoentzako Igel Txapelketea.

17:30ean, 18 urtez azpiko Bola Txapelketea.

18:00etan, 18 urtez gorakoentzako Bola Txapelketea.

18:00etan, Zurrunka Teatroyen *Pulcinella Txio-Txinela* txotxongilo antzezlan.

19:00etan, kontzertuak: Puro Relajo, Ganibet, Nafarroa 1512 eta Iraultza erromeria.

### Abuztuak 1, zapatua

11:00etan, haur parkea eta puzgarriak.

13:30etik 14:00etara, Gastronomía Lehiaketea (paellea, gisadua eta tortillea).

Gero, herri bazkaria.

17:00etan, Aingeru Show Diskofestea.

17:00etan, jubiladuek antolatutako Mus eta Briska Txapelketak.

19:00etan, Ilargi txarangea.

22:00etan, Playback Lehiaketea.

23:30ean, kontzertuak: Kak!, Koma eta Altxa Porru erromeria.

02:30ean eta 05:00etan, etxera bueltetako autobus zerbitzua. Goizaldean, pikoteoa.

### Abuztuak 2, domekea

17:00etan, *Zirkoteka* umeentzako zirku tailerra.

19:00etan, Euskolabel oilasko pintxo dastaketea.

19:00etan, Maria Vaquerizoren kontzertua.

Gero, Garsuren erreketea.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## BEGITUREN Udako Argazki Lehiaketea abian



### Asier Abrisketa

Urtero lez, martxan da BEGITUREN Udako Argazki Lehiaketea, udan bizi izandakoak beste irakurleakaz konpartiduteko. Gogoratu, ez dirala zertan leku exotikoenetan ateratako argazkiak izan behar, honeek be eskertuten badoguz be, gure inguruetan be sano egun ederrak pasau ahal dira udan. Argazki irabazlearen egileak astegoi bat landetxe baten izango dau sarizat.

**Gaia:** Argazkiak 2026ko oporetan egindakoak izango dira.

**Lanen ezaugarriak:** Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.

**Nora bialdu:** Argazkiak [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera bial-

du behar dira.

**Aurkezteko epea:** 2026ko garagarrilaren 1etik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko aldizkariaren zenbakietan argitaratuko dira batzuk.

**Epaimahaia:** BEGITUKO erre-dakzino taldeak osotuko dau. Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarreanean emongo da jakitera.

**Lehenengo saria:** Persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaia egoki jo ezker.

**Oharra:** Lehiaketa honetan parte hartzean dabenek honek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Garagarrilean eta abuztuan zenbaki bana aterako dau BEGITUK paperean

### Asier Abrisketa

Garagarril eta abuztuan, hile bakoitzean, zenbaki bakarra aterako dau BEGITUK paperean. Ha-ta guzti be, BEGITUK, Arratia, Ubide eta Zeberioko informazioa jarraituko dau emoten [begitu.eus](http://begitu.eus) webgunean eta sare sozialetan. Papereko aldizkariari jagokonean, 22 zenbaki ateraten dira urtean. Hau da, garagarrilean eta abuztuan hile bakoitzean zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasikerakoa. Aurten be holan izango da, eta garagarrilaren eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da

egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren 3koa izango da eta urri lehenengoan, barrero be, hamabostero kaleratuko da BEGITUK aldizkaria paperean.



## ARRATIA, UBIDE

## Mankomunidadearen egoera ekonomikoa argitzeko **kanpo-auditoria** bat exijidu dau EH Bilduk

### Asier Abrisketa

Arratiako EH Bilduk ohar baten bitartez salatu dau Arratiako Udalen Mankomunitatea, "atzen urteetan gastuak eta zorra etenbarik handitzen" dabilela: "Egoera hori herritarrek eta udalek ordainduten amaituko dogu". Egoera holan, koalizio subiranistak EAJk gidatutako dauan mankomunidadearen egoera ekonomikoa "kezka handiz" ikusten dau. Egoera argitu eta atzen urteetako kudeaketa sakon aztertuteko, kanpo-auditoria independente bat eskatu dau EH Bilduk.

Salaketea oinarrituteko, hainbat datu emon ditu EH Bilduk. Azaldu dabe, atzen lau urteetan aurrekontua ia % 52 igon dala, aurten 5,2 milioi euro; baina hazkundera ez dala

"modu jasagarrian egin". Izan be, maileguen bitartez egin da, atzen urtean 600.000 euroko mailegua eskatu da: "Zorrek hurrengo urteetako aurrekontuak baldintzatuko dauz, eta horrek murrizketak edo udalen ekarpenen igoera ekar daike". Aurrekontu defizitarioa dala



salatu dabe: "4,1 milioi euroko sarrerak izan arren 5 milioitik gorako gastuak konprometidu ditue; horrezaz gainera, 297.000 euro inguru gastau dira jagokan partidariak izan barik".

### "Banaketa sistema bidebakoa"

EH Bilduk salatu dauan beste gai bat herriz herrikako personako ekarpenen desbardintasuna da: "Arantzazu, Artea eta Ubide moduko herrietan biztanleko kostua 129 euro inguruko da; Igorre eta Lemoan barriz, 65 euro inguruko". Gaineratu dabe, Arratiako biztanleria ia ez dala aldatu atzenaldian eta zerbitzu bardiak mantendutak dirala: "Atzen lau urteetan -udalen ekarpenen igoera % 32koa izan da; zabor bilketarena % 76 eta herritarren tasak % 30 garestitu dira".

## LEMOA

## Pozuetako auzotarrek baiezkoa emon deutsee oinezkoentzako zubiari

### Asier Abrisketa

Lemoako gaurko Udal Gobernuak programan jaso eban Pozuetako auzotarren eskaerea, auzoaren eta errekatoaren bestekaldeko aparkalekua lotzeako oinezkoentzako pasabidea egiteko. Maiatzean, proiektuagaz hasteko auzo konsultea egin eban Lemoako Udalak, auzoan errodutako artean eta emaitzak batuta, argi berdea emon jako proiektuari. Aldeko 44 boto eta kontrako 20

jaso dira galdeketa.

Lemoako Udaletik BEGITUN azaldu dabenez, obren hasiera data lanen bigarren lizitazioa egin eta esleipena formalizetan danean zehaztuko da. Izan be, lehenengo proiektua 2024ko da eta orduan proiektua 119.550,84 eurotan finkatu bazan be, urte bi pasau diranez aurrekontua birkalkulau eta eguneratu egin beharko da. Halanda be, 2027rako lanak amaituta egotea aurreikusit dau Udalak.



## ARTEA

## Communia berbaldi-zikloaren hirugarren edizinoa barriro egingo da Basoan

Garagarriaren 23tik 26ra, tailer, berbaldi eta eztabaida ugari egingo dira, Politikaren hondamendiaren garaian eta Klase-borroka eta borroka klaseak blokeetan banatuta. Kontzertuak eta aisialdirako eskaintzak be egingo dira.

### Asier Abrisketa

Fundacion de los Comunes alkarreak hirugarrenez antolatu dau urte birik behin egin dan Communia berbaldi-ziklo eta jaialdia. Lehenengo edizinoan egin zan moduan, aurten be Arteako Baso Defendatzailen Etxea izango da burruka desbardinak batuko dituan tailer, berbaldi eta eztabaiden egoitza. Oindino egitarau osoa publiko egin ez dan arren, Basoatik BEGITUN aurreratu dabe egongo dirala hainbat kontzertu eta beste aisi-eskaintza batzuk be, ibilaldiak, txangoak, jantzak etab.

Halanda be, hausnarketea eta eztabaidea dira helburu nagusiak. Ordena globalaren kolapsoa gertatutako bitartean eta joko kapitalistaren arauak aldatzeari uko egin deus ezker progresistaren garaian, Communian "behetik antolatutako burruketan, bizitzaren politizazioan eta komuntasunaren zentralidadean apustu" egingo da. Atzen helburua, "proposatutako dogun lan poli-

tikoak politika erradikala, alai eta nostalgia zein ilusino erreformista bakoa" eregitea dalarik.

Izen-emotea garagarriaren 13ra arte egin daiteke [fundaciondeloscomun.es](http://fundaciondeloscomun.es) webgunean. 110 euro ordaindu behar dira, armozu-bazkari-afariak eta ostaturako lekua ordainduteko.

### Garagarriak 23, eguena

19:00etatik 20:30era, *Kaos sistemikoa, hegemonia-aldaketa eta krisi klimatikoa* berbaldia.

### Garagarriak 24, barikua

10:00etatik 12:00etara, *Erreformismoaren bide laburra* eztabaidea.



12:30etik 14:00etara, *Sanchismoa eta hurrengo hauteskunde zikloa* lantegia.

12:30etik 14:00etara, *Hipotesi sindikalaren inguruko eztabaida* lantegia.

16:00etatik 17:30era, *gune eta taldeen topaketea*.

18:00etatik 20:00etara, *Internazionalismoa* eztabaidea.

### Garagarriak 25, zapatua

10:00etatik 11:30era, *Mugimendu sozialaren gainbehera eta woke-aren despolitizazioa* mahai-ingurua.

12:00etatik 13:30era, *Zertarako balio digu feminismoak gaur? Klasea, zaintza eta emantzipazioa* eztabaidea.

13:00etatik 15:00etara, *gune eta taldeen topaketea*.

16:30etik 18:00etara, *Zein da behar dugun ekologismoa? Krisi ekologikoa, mundu-sistema eta antolaketa* eztabaidea.

18:30etik 20:00etara, *Antolakuntza faltatik haratago. Borrokak, eskala eta aukera komunak* eztabaidea.

## ARTEA

## Haurreskolan sartu eta materiala bota dabela salatu dau Udalak

### Asier Abrisketa

Arteako Udaletik iragarri dabenez, bagileko atzen astegoienean ezezagunak Arteako Haurreskolara sartu ziran eta argazkietan ikusten danez, materiala (liburuak, jostailuak, koltxonetak...) nahastau eta lurrean zehar bota dabe. Horrezaz gainera, ezezagunak ordenagailuan be sartu ziralda adierazo dabe Udaletik. Ustez, atea indarrez zabalduta sartu ziran erasotzaileak.

Igorreko jaietan institutuan

pasau zan moduan, Artean be atzenaldian pasau dira antzerako gertakerak. Izan be, Udaletik adierazo dabe aurreko astean zehar be, ezezagunak lautuan sartu ziralda eskolako kiroldegian eta gero, materiala lurretik botata agertu zala. Arteako Udalak Er-tzaintzea jakinaren gainean ipini dau eta hilaren 29an bertaratu ziran ertzainak. Oin, salaketa formal sartzea baloretan dabil Udala: "Hartu beharreko neurriak balorauko dira, ezin doguz holango gertaerak normalizau".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Bizi-bizi datoz **auzoak** garagarrilean



Zeanuriko Ipiñaburu auzoko jaietako irudia.

### Asier Abrisketa

Arratia, Ubide eta Zeberioko auzoetan deskantsurako denpora gitxi egongo da hileon. Behean batutako egitarauetaz gainera, beste jai ugari egingo dira-ta. BEGITUREN edizino hau zarratu orduko guztiz prest egon ez diran jaien artean dago Zeberio eta Zaratamo arteko Upoko San Segismundukoa, hilaren 19an. Zaratamok antolatuten dau aurten eta mugarren ekitaldia, bertsoak, jantzak eta trikitilariak egongo dirala aurreratu dabe BEGITUN.

Ubideko madalenak hilaren 22an izango dira, badakigu mezea, umeentzako jolasak, Pancho Balbuena mariatxia eta sardina zein txokolatea egongo dirala, bai eta sorpresa batzuk. Zeanuriko Otzerinmendiko sanjustoak osterabuztuaren 1ean izango dira eta aurreratu dabe mezea, Paella Txapelketea, Bola Txapelketea eta Bilbao anaiak egongo dirala. Badagoz beste jaitxo batzuk be: Dimako Laminadaon, Santiagon eta Aroztegietak San Inazion berbarako.

### AREATZA

Ospitalosteko Santo Tomas jaiak.

#### Garagarrilak 3, barikua

12:00etan, mezea.  
20:00etan, parrilladea.

### ARTEA

Santa Mañe jaiak.

#### Garagarrilak 19, domekea

12:00etan, mezea.  
14:00etan, Paella Txapelketea.  
17:00etan, Mus eta Briska Txapelketea.

Santiago jaiak.

#### Garagarrilak 25, zapatua

12:00etan, mezea.

14:00etan, Marmitako Txapelketea.

17:00etan, Mus eta Briska Txapelketea.

### DIMA

Artaungo jaiak.

#### Abuztuak 1, zapatua

18:30ean, txupinazoa.  
Jarraian, Lourdes Soraluze XVII. Bola Txapelketea.  
20:00etan, auzo txitxi-burduntzia.  
21:00etan, erromeria Kittu taldeagaz.

#### Abuztuak 2, domekea

12:00etan, umeen jolasak eta mozorro erakusketea.  
18:00etan, herri-kirolak.  
20:30ean, Tortilla Txapelketea.  
21:00etan, Bilbao anaiak trikitilariak eta errifen zozketea.  
21:30ean, txokolatea.

### IGORRE

San Kristobaleko jaiak.

#### Garagarrilak 10, barikua

12:00etan, lehenagoko moduan kantautako mezea.  
Ostean, trikitilariak eta barauskarria.

#### Garagarrilak 11, zapatua

12:00etan, Paella Txapelketako izen-emotea.  
13:30ean, Igel Txapelketea.  
14:30ean, paellen aurkezpena.  
16:30ean, III. Goitibehera Jatsiereak.  
17:30ean, Tortilla Txapelketako izen-emotea.  
18:30ean, bits festa.  
20:00etan, tortillen aurkezpena.  
21:00etan, Arantzarte eta Agrupacion Folclorica El Moral (Tenerife) taldeen jantzialdia.  
23:00etan, On taldearen kontzertua.  
24:00etan, Akerbeltz taldeagaz erromeria.  
Gero, DJ Gose ta Sue.

### LEMOA

Arrañoako Santiago jaiak.

#### Garagarrilak 25, zapatua

12:00etan, mezea.  
Gero, eskupelota partiduak, barauskarria eta Igel Txapelketea.

### ZEANURI

Ipiñaburu Santiago jaiak.

#### Garagarrilak 18, zapatua

13:00etan, txupinazoa.  
14:00etan, auzo bazkaria.  
Gero, animazioa.  
19:00etan, Bola Txapelketea.  
20:00etan, txokolatea.

#### Garagarrilak 24, barikua

19:00etan, auzotarren arteko Tortilla Txapelketea.  
Gero, partaideen arteko afaria.

#### Garagarrilak 25, zapatua

12:30ean, mezea.  
Gero, barauskarria eta herriko txistulariak.  
16:30ean, Wallas Magoaren magia tailerra.  
17:00etan, *Magia Bizi* emonaldia, tailerreko umeen eskutik.  
20:00etan, artzai txakurren erakustaldia.  
21:00etan, urdai-jana.  
21:30ean, erromeria Merhezi taldeagaz.  
Gero, errifen zozketea.

#### Garagarrilak 26, domekea

11:30ean, mezea.  
Gero, barauskarria.

Undurragako San Inazio jaiak.

#### Garagarrilak 31, barikua

12:30ean, mezea.  
Gero, barauskarria.

### ZEBERIO

Argiñaoko San Adrian jaiak.

#### Abuztuak 1, zapatua

12:30ean, mezea.  
Gero, barauskarria.

IGORRE

## Arratiako Ernairen Elkargunea egingo da hilaren 2an

Ernairen IV. Kongresuaren ondorioak zein udako dinamika aurkeztu eta urri lehenengoaren 13ko manifestaziorako deialdia egingo da.

### Asier Abrisketa

Ernai gazte antolakunde independentistek Arratiako Elkargunea ekimena erango dau aurrera garagarrilaren 2an, eguna. Militanteak zein gazte independentistak Kiñu Gazte-txean batuko dira, 19:00etatik aurrera, Ernairen hurrengo pausua zeintzuk izango diran ezetu eta bide batez, gazte antolakundeak urri lehenengoaren 13an Donostian, "Euskal Herria irabaztera! Faxismoari ez" lelo-

pean deitu dauan manifestazino nazionalerako deialdia egitera.

Ernaik maiatzean egin eban gazte antolakundearen IV. Kongresua Beasainen, hurrengo urteetarako bideorria marraztuaz. Ernaiko kide batek BEGITUN azaldu dauanez, kongresuan ateratako idea eta ondorio nagusiak Arratiako gazteen artean "lurreratuteko" erabiliko dau Elkargunea. Horrezaz gainera, Ernaik udan aurrera erango dituan dinamika be azalduko dira garagarrilaren 2an.



DIMA

## Kirola eta street food-a buztartuko dira hileon Garena jatetxean

### Asier Abrisketa

Lamindaoko Garena jatetxean plan desbardin bi antolatu ditue garagarrilerako. Batetik, hilaren 3an Street Food Gaua ospatuko da 20:00etatik 23:30era. Bestetik, hilaren 17an Osasuna eta errendimendua izenpean, bisita gidatua eta kirol eta osasunaren gainera berbaldia egingo da. Kasu bietan, izen-emotea doban da eta 94 631 72 15 telefonora deituta edo @garena.fest\_a Instagram kontura idatzita egin daiteke erreserba.

Street Food Gauean, food-truck-a eta zuzeneko sukaldea egongo dira: oilasko-hegoak, takoak, pizzak, txanpiak, post-treak... DJ Zigor DZ-ren musike-agaz eta MARTZ muralistearen zuzeneko arteagaz buztartuko



dira.

Garagarrilaren 17an barriz, goizeko plana izango da Garenakoa. Hasteko, 10:30ean harre-rea eta hamaiketako egingo da eta jarraian, jatetxe eta honen ortutik bisita gidatua egingo da. 11:30ean, Durangoko Branka kirol zentroko Gorka Lupiañezek Osasuna eta errendimendua berbaldia eskainiko dau Garenako mahastietan.

## ITXASO ARANDIA

# “Urte guztian egindako lana proban ipinteko momentua zan”

Eta lan handia egin daua ezin hobeto frogatu dau. Itxaso Arandia 25-29 urte bitarteko Europako OCR txapeliduna da eta datorren urtean, elite mailan lehiatu eta mundialera be joateko asmoa agertu dau BEGITUN eskaintako alkarrizketan.

## Asier Abrisketa

Itxaso Arandia Fernandezek (Igorre, 1997) OCR -Obstacle Course Race- oztopo lasterketan hartzean dau parte 2023tik. Maiatzaren 30ean, Irunen jokatu zan Europako Txapelketan hartu eban parte, 25 eta 29 urte bitarteko kategorian eta hirugarren postua lortzeako helburuagaz joan bazan be, atzanean txapela jantzita bueltau zan Igorrera. Orduan, “ezin sinistu eta sano pozik nago lortutakoagaz” kontau eban BEGITUN eta oindino be gogoratuten dau egun zirrargarri ha: “Piloa disfrutau neban, lasterketa aurretik eta karreran bertan”.

Esperientzia hau kontau eta kirol ezezagun honen gainean berba egiteko alkartu da BEGITUN beragaz Igorreko Guramen zentroan. OCRa praktiketako Bizkaian zabaldu zan lehen zentroa izan zan eta gaur egun be, dagoan leku handiena eta osotuena da. Entrenau bakarrik ez, Arandiak OCR entrenamentuak gidatu be egiten ditu Guramenen eta berak azaldu dauanez, hazten doan familia da OCRkoa; Ondarroatik be badator jentea eta aurten hasi dira gazteak be heltzean: “Urtean zehar pasau dira hemendik 60 persona inguru”.

## Zelan ipini zinan kontaktuan holango kirol ezezagun bategaz?

Ba esango neban sare sozialen bitartez ezetu nebala, atzanean inguruan ez dot euki ezebez. Iku-si neban Gasteizen gimnasio bat egoala, honetan entrenetako. “El Conquis”-etik bastante berotuta eta amorrugaz urten nintzan eta esan neban, ointxe da barruan dekodan hau aterateko eta holango kirol bateri aukerea emoteko momentua.

Pilo bat denpora egon nintzan egiteko guran baina atzanean, Gasteizera joatea eta... orduan Bizkaia mailan ez egoan ezebez. Gasteizen hasi nintzan eta hasikera batetik artea deitu eustan eta gustau jatan. Eta begiratu, ba atzanean etxe ondoan nago.

## Oin zure lehentasunezko kirola da, zer dauka hain erakargarria?

Ba irudituten jata kirol super osotua eta dinamikoa dala. Atzanean, oztopo aldetik barriedade itzela dago, batzuk entrenau ahal doguz baina beste batzuk ez. Gimnasiotik gimnasia be asko aldatuten da, oztopoen aldetik eta... Beti dagoz aterateko erronka barriak eta indarra eta kardioa buztartuteak niretzako kirol osotua bihurtuten dau OCRa.

## Bizkaia mailan Guramen izan da OCRaren enbrioia, ze giro dago hemengo taldean?

Lehiatuten garanak, oin hamabi persona inguru egongo gara hemen baina badagoz hasibari asko, txapelketetara ez doazena, bai entrenau bakarrik gura dabelako bai oin hasi diralako. Aurten igarri dogu jente nahiko gaztea hasi dala etorten, insituko gazteak eta batzuk hamar urte ingurukoak be. Ez dakit zifra zehatz bat esaten baina urtean zehar pasau dira hemendik 60 persona inguru edo. Holango kirol ezezagun baterako pozik gagoz.

Gero ba holango lasterketak Euskadi mailan ez dagoz asko eta askotan joaten gara Nafarroara, Errioxara... Taldetxoak batzean gara, bost-hamar persona tartean, eta egun osoko edo astegoi osoko plana urtetan da atzanean. Batera joan, bazkaldu, lasterketea, buelta... Giroa ona da eta lagunduten gara gure artean. Orduetegi desbardinak egoten diranez bestea ikusten joaten gara eta ibiltzen gara aholkuak eta animoak emoten.

## Europako Txapelketea izan da oin arte zure lorpenik eta handiena, zelan bizi izan zenuan eguna?

Jo ba eguna izan zan oso zirraragarria, karrera hasi aurretik be bai. Atzanean hau nire helbururik handiena izan da eta hilebeteak egon naz honetarako entrenetan, emaitza on bat egin gura neban. Orduan goizetik hasita ja hunkituta jentearen mezu eta animoakaz, ia-ia negarrez be lasterketea hasi orduko. Urte guztian egindako lana proban ipinteko momentua zan.

Piloa disfrutau neban, lasterketa aurretik eta karreran bertan. Lasterketa guztian lehenengo



**Beti dagoz aterateko erronka barriak eta indarra eta kardioa buztartuteak niretzako kirol osotua bihurtuten dau OCRa**

hiru postuen artean egoteko suertea edo euki neban. Niretzako hori izan zan, korrika egin bitartean sinistutea ze puntutan nengoan. Gero ja, amaitu neban sartu jatan negargurea; ama egon zan, hurreko jentea... pasau zana ezin sinistu! Oso hunkituta.

## Lehenengo postuetan lehia egon zan, edo erraz irabazi zenuan?

Ez, egia esan nahiko gertu egon ginan. Lasterketa honeetan neurtu behar dozu korrika ze erritmotara egin, gero oztopoak ondo pasetako. Orduan, ez dau merezidu be ez lar arin joateak, zure lehiakideak oso arin ez doazela ikusten badozu. Bata bestea ikusten joan ginan karrera osoan, ez eban merezidu gehiago saktuteak ze gero txarrago heltzean zara atzen zatira. Hau oso gogorra izan zan gainera, hamar oztopo jarraian. Lehenengo hiruror artean hamar minutuko desbardinatasuna edo egongo zan.

## Zein esango zenuan izan zala txapela irabazteko kaka?

Ba ez neban irabazte espero. Atzanean ez da bardina Espainia mailan lehiatutea edo kanpokoakaz. Espainia mailan ezetan dodaz personak eta badakit ze maila dagoan baina kanpoan ba ez dakit. Orduan, kaka niretzako izan zan arriskatutea, karrera fuerte hasta eta hasikera batetik posizino on bat mantenduten saiatutea. Gero, amaieran deskantsau behar izan neban

oztopoak ondo pasau ahal izateko baina aldi berean, zuhur ibili denpora asko galdu barik.

Orduan, atzanean korrika partearen eta oztopoenaren oreka topetea da. Batez be, oso garrantzitsua izan da nire buruarengan konfidantzea izatea eta puntu on baten heldu nazala sinistutea. Seguru zagozanean gauzak askoz hobeto urtetan dira.

## Teknika eta erresistentzia neurtutea da orduan?

Bai hori da. Nik esango neuke hobe teknikan, oztopoetan, nazala. Aurkariak lehiari igarri dot nire indargunea oztopoak dirala. Besteek baino abilitate edo indar gehiago daukat eta korrika partean, ahulago nabil. Orduan saiatu naz korrika partea entrenetan, oreka hori topetako.

## Guramenetik joan zan jente gehiago be Irunera ezta? Zelan egin eben?

Bai Guramenen gagozan arratien artean Andoni Beldarrain (Artea) eta Asier Nuñez (Zeanuri) be joan ziran. Galdakaoko Gorka Leiva eta Ondarroako Idurre Martin, danok lehiatu ginan adin tartetean. Emaitzak orokorrean oso onak izan ziran. Gehien kasuan lehenengo aldia zan lehiatuten, orduan, euren helburuen artean ez egoan podiuma egiterik be ez. Atzanean bakotzak helburu desbardin bat dauka baina orokorrean sentzazinoa oso ona izan zan, danak amaitu eben klasifikauta, hau da,

eskumuturrekoakaz. Oso pozik. Nik atzenengo oztupoan galdu neban atzen eskumuturrekoa, baina bueno ikusi neban ezin nebala. Hor neurtu behar dozu zenbat denpora galduko dozun deskantsetan edo zenbat galduko dozun eskumuturra galtzean eta berau barriro lortzean. Eskumuturreko bat galtzean dozunean zigor bat egoten da, karga bat eroatea. Orduan esan neban, botata jausten banaz zigorra arin baten egin eta denpora gitxiago galtzean dot. Ze estrategia erabili pentsau behar da. Atzenengo oztupoa izanda eta besteak atzetik hurbil ikusita, imajinatu neban oztuporen baten jausiko zirala eta gurago izan neban zigorra arin bete eta listo. **Txapelketeagaz egon zan arazoren bat ezta, Israeleko taldearen parte-hartzea zala-ta.** Israelekoak urtero etorten dira

Europako Txapelketara baina bueno, atzenean, non jokatu denan arabera polemika gehiago edo gitxiago egon ahal da. Hemengo kasuan, txapelketea hasi zan aste berean hasi zan jentea mobiduten Israelekoak kanporatuteko helburuagaz. Lortu zan Israel taldekako lasterketatik kanpo ixtea. Gero beste modalidade baten, 100 metrokoan, bai hartu ebela parte modu indibidualean, ez selektino moduan. Egunean bertan egon ziran Irunetik pankartak ipinita eta manifestazino bat be; sare sozialetan be mobimentu asko egon zan. **Europakoa irabazita, ze txapelketa daukazuz oinburuan? Mundiala?** Ba mundiala badago, abuztuan Irlandan, baina ebatzi neban aspaldi ez joatea. Oin pena apur bategaz nago erabaki

hori hartzearen baina bueno, atzenean abuztuan da eta beste plan batzuk dagoz. Diru aldetik be, kirol honetan gutariko bakotxak ordaindu behar doguz gastu guztiak eta ebatzi hori hartu neban. Oin, izan dodan emaitzea ikusita peneagaz. Baina igual hurrengo urtean, hasikera batetik denporaldia planeetan dodanean kontuan eukiko dot mundiala eta saiatuko gara parte hartzean. Maiatza eta bagila bitartean egoten dira Espainiako, Europako eta munduko txapelketak eta nik horreerri emoten deusiet garrantzia. Urtean zehar joaten naz beste batzutara baina entrenamentu modura hartzean dodaz. Hau nire kasuan, bakotxak bere helburuak daukaz. Urrietan badaukat karreraren bat baina hori, pisu gitxiagogaz. **Ez dakit hau zure esku da-**

**goan, baina datorren urtean elite mailan lehiatuteko asmoa daukazu?** Bai aukerea badago. Oindino ez dot pentsau zer egingo dodan baina erronka on bat izango zan elite mailara pase-tea. Espainia mailan lehiatuten naz elite mailan, badaroadaz urte bi, baina Europa mailan adin tartean joan izan naz. Ez naz ikusi elitera sartzeko moduan. Baina aukerea badaukat, klasifikauta egon naz, nire ebatzia izan da apur bat mailaz bajatutea, zelan nagoen ikustea eta helburuak lortzea. Oin, helburua lortuta idealena datorren urtean elitera pase-tea litzateke. **Podiumean egoteko asmoagaz be bai?** Ez, ez, ez. Helburuak errealistak izan behar dira eta elite mailan, momentu honetan behintzat, ezinezkoa da podiumean egotea. **Gure inguruan, ze izen handi dagoz OCR munduan?** Andrea Azkune da erreferenteetarikoa. Urte asko daroaz eta andran artean bera ondoen dabilenetarikoa. Atzenean berari esker ezetu dot kirol hau, El Conquis-en bitartez bera ikusita, sare sozialetan eta... Atzenean lagunak egin gara. Hasikeran

bakarrik egoten nintzanean mundu honetan berak emon eustan aukerea, bidaietan eta beragaz joateko. Aholku piloa emoten deust eta pilo bat lagun-du. Bera esango neban dala gehien nabarmenduten dana, urte asko daroaz, 2019an hasi zan. Orduan ez eban ezetuten OCRa inork eta oin hasi da entzuten, gehienentzako ezezaguna bada be. Hemen igual, Guramenegaz eta gehiago ezetuten da baina kanpotik jentek pentsetan dau atletismoko hesiak saltetea dala. **Gehiago irabazi aurretik, nori edo nortzueri dedikau gura deutzazu Europako txapel hau?** Ba prozesu honen parte izan eta ondoan euki dodazen personei. Nire bikotea, ama eta nebea. Nire nebea izan da korrika partean lagundu deustan personea, entrenadore moduan. Nire aitari bebai, ez dago hemen baina ziur harro dagoala. Entrenamentu partean be Gurameneko jaubeak, Igorrek, lagundu deust entrenamentu espezifikoa egiten. Eta Gurameneko kideei be bai, askotan eureka entrenetan dot, lagunduten deustie eguneru hobe izaten eta laguneri be bai.

**AREATZA UZTAILA**

**BARIKUA 3** Ospitalosten

**Santo Tomas jaiak**

- 12:00 Meza.
- 20:00 Parrillada.

**EGUAZTENA 8** Pedro Antonio Alvarado parkian

**Kontzertua**

20:00 Kontzertua: Tenerifeko Agrupación Folclórica El Moral-en Parranda taldea.

**EGUENA 9** Balmuetxe andoko landan

- 20:00 Komorebi Produzioak-en Argilunak + Zubak antzezlanak.
- 22:00 Kontzertua: Ane Han.

EMAKUMEA ETA LURRALDEA ZIKLOA

**ZAPATUA 18** Frontoian

- 19:45 Danok kalejiran plazatik frontoira.
- 20:00 Folklore Bizian
  - Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari Taldea.
  - Kubako Conjunto Folklórico Camagua.
  - Madagaskarko Conjunto Folklórico Nacional Benja Gasy.

**EGUENA 23** Balmuetxe andoko landan

- 20:00 Trotamundos Kompainiaren Finito-Infinite antzezlanak.
- 22:00 Kontzertua: La María.

EMAKUMEA ETA LURRALDEA ZIKLOA

**Bizkaia** instituzioa diputación foral

**Areatza Uztaila** Ayuntamiento de Areatza

**ELIKO JARMURAKITZA GOBIERNO VASCO**

## Zer da OCR?

OCR ingelesezko *Obstacle Course Race*-ren akronimoa da, oztupo lasterketa moduan itzuli daitekeana. Historikoki, entrenamentu militarretan oinarritutako probetan dago oinarrituta eta 1987an Wolverhampton-en (Ingalaterra) egin zan Thought Guy txapelketea hartzean da kirolaren formatu modernoaren sorleku moduan. Halanda be, 2014ra arte ez zan estandarizau, orduan sortu zan-ta World Obstacle federazioa.

Probeak zati bi izaten ditu, batetik oztupoena bera, eta bestetik oztupoen arteko galapan egiteko zatiak, asfalto zein lurtean. Itxaso Arandiak irabazitako frogeak barbarako, galapan egiteko 13 kilometro eta 520 metroko desnibela eta 43 oztupo desbardin eukazan. Oztupoak mota askotakoak izan daitezke, oreka lantzeakoak, abildadezkoak, kargak eroateko indarrezkoak, elementu desbardinak (sokak, uztaiak...) erabilia distantzia zehatz bat eskegita pasetakoak, punteria lantzeakoak... Oztupo batzuk estandarizata egoten dira baina beste batzuk, antolatzaileek asmatuten dabez eta beraz, parte-hartzaileentzako sorpresea izaten da askotan proba.

Hasikeratik, kirolariak hiru pultseragaz urtetan dira, bizitzak modukoak diranak. Hau da, hiru eskumuturrekoak galdu ezker, ez da gehiago puntuetan. Oztupo bat pasetako gai ez diran momentuan galtzean dabe eskumuturreko bat. Oreka eta punteria oztupoetan aukera gehiago emoten dan arren, normalean proba bakotxeko ahalegin bakarra onartuten da. Halanda be, badago galdutako pultserak berreskuratuteko aukerea proba guztiak amaituterakoan, baina gitxienez pultsera bategaz ailegau ezker. Normalean karga bat eroanda berreskuratuten dira pultserak, izan be, sailkatuteko hiru pultserak eukitea beharrezkoa da.

Beraz, kirol honen kakoa bakotxaren erresistentzia eta teknikearen arteko oreka topetea izaten da. Bakotxaren indarguneak zeintzuk diran jakin behar da eta oso gatx ikusi ezker, balorazio bat egin behar da, ia hobeto dan saiatu edo amaieran zigorra betetea. Galapan egiteko eritimoa be neurtu behar da, hau izaten dalako deskantsurako uea.

**TXIRRINDULARITZEA**

**Julen Zubero larri zaurituta, Zeberion auto batek bere bizikletea jota**

Txirrindularia helikopteroz eroan behar izan eben Gurutzetako ospitalera.



bero KASeko txirrindulariaren semea Gurutzetako ospitalera eroan eben jarraian, helikopteroz. Hainbat hedabidek informau ebenez, traumatismo ugari sufridu ebazan Zuberok, tartean buruhazurrean.

Lemoako txirrindulariak 44 urte bete barri ditu eta Ciclos Zubero bizikleta negozio familiarren jaubea da gaur egun. Luis Zubero bere aitaren bidea jarraituta, gazte-gaztetatik ibili da bizikleta ganean. Lehenengo ziklo-krolean nabarmendu zan eta gero, 2005 eta 2007 artean, profesionala izan zan Orbea taldeagaz. Txirrindularitza profesionala aritu da, Titan Desert moduko lasterketetan parte-hartu eta etapak irabaziaz. Euskadiko BTT Openean, 2013an, podiuma eskuratu eban eta oindino be parte-hartzean dau proba ugaritan.

**Asier Abrisketa**

Bagilaren 16 arrastian, Julen Zubero txirrindulari lemoaztarra Zeberioko kaminotik joian

bizikleteagaz kotxe batek hau harrapau ebanean. Ezbeharra Orueko zerrearen parean gertatu zan, ustez, auto gidariaren deskuidu bategatik. Luis Zu-

**PELOTEA**

**Biharko Izarrak eta Master Kaiolako azpitxapeldun izan da Bingen Beitia**

“Holango prestigioa daukan txapelketa bateko -Biharko Izarrak- finalera heltzeagaz oso pozik”, agertu da zeanuriztarra.

**Asier Abrisketa**

Joko Alai klubeko Bingen Beitia zeanuriztarrak txapelketa garrantzitsu bi jokatu ditu bagilean eta txapelik lortu ez dauan arren, final bietara ailegauta erakutsi dau oindino be badaukala ibilbidea aurretik. Jokatutako lehenengo finala promesa gazteen Biharko Izarrak-ekoa izan zan, bagilaren 12an Mallabian. Ander Balerdi zegamarragaz jokatu eban eta finala 22-13 galdu eben, urrietan profesionalakaz debutauko daben Lizeaga eta Elorzen kontra. Beitiak BEGITUN azaldu dauanez, finala sentsazio txarrakaz jokatu eban baina jokatutako txapelketeagaz sano pozik agertu da: “Esango neuke aurten jokatu dodan txapelketarik onena izan dala”.

Bagilaren 21ean barriz, Zornotzako XI. Master Kaiola Txapelketako finala be jokatu eban



Beitiak, Fermin Arribillagaren kontra. Oingoan be, Zeanurikoa azpitxapeldun izan zan, 22-12 galdu ostean. BEGITUN kontau dauanez, partidua bardintsu hasi zan eta 10-10era arte bata bestearen atzetik ibili ziran bai-

na hortik aurrera, joko “apurtu” zan. Fisikoki Arribillaga hobeto ibili zan eta tantuz tantu, aldea handituz joan zan. Baina beste behin, egindako txapelketeagaz harro agertu da, “mailea emon dogu”.

**BEGITU**

**IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN**

• **649 979 115** •

[inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)

**BEGITU**

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**Kili-Kili**  
Anjoa eta Puertuko  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 473 43 81

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Blatzen dogu jakintza* *Bideren dogu proiektuak*

- Salmentan zein alokairuan
- Lurrik (enklitza, landak, basak...)
- Etebidizkor (inurak, baserriak, etxeak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Publizitateak...
- Balorazioak

- Irakin berriak enklitzeko
- Inkluzioak
- ARKITEKTO-PROIEKTUAK
- Barne diseinua
- CEE eta IIE-ak
- Hirigintza ohikularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

**arratia INMOBILIARIA**

Lehendakari Agirre 25, 1001 - Igurre  
Igurreko 94 431 21 21 - 455 16 21 21  
GIFARRA 94 431 21 21  
Bilbao 475 702 111  
arratia@arratia.com

**Olaetxe OPTICA**

Graduazioak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiako tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

TXIRRINDULARITZEA

## Txirrindularitza baseko Espainiako Txapelketan lehiatu da Oihan Rekakoetxea zeberioztarra

Bizkaiko ordezkari moduan lehiatu zan bagilaren 20an Madrilen, aurrekoen erorketa batek zapuztu eutsan lehenengo postuetako burrukea.



Euskal Selekzinoa, Oihan Rekakoetxea ezkerreko lehena.

Asier Abrisketa

Oihan Rekakoetxea Hernandez zeberioztarra, gaur egun Galdakao Gela taldekoa baina Arratiako ziklistan hazia, Torrejon de Ardozen (Madril) egon zan bagilaren 20an Eskolako

Espainiako Txapelketan. BTT txapelketan Lemoako Txirrindulari Elkarteko Peio Erdoiza dagoan moduan -hileon jokatu da-, Rekakoetxea errepideko probetarako sailkatu zan, aukeratu teko momentuan Udaberri Kopako lehenengoa zala-ta.

Euskal Selekzinoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lehenak eroan ebazan, bai eta EAeko txapelduna, eta Rekakoetxea Bizkaiko ordezkaria izan zan.

Txapelketarako prestatuteko, selekzinoa hainbat entrenamentu saio egin ebazan Berrizko belodromoan eta hor prestatu abiatu ziran Madriler. Txapelketan bertan, 40 graduko temperatura protagonista nagusi izanda, lehenengo ginkane egin eben. Rekakoetxea ondo ibili zan baina egindako akats bat zala-ta, 30. postuan geratu zan. Errepideko proban barriz, Rekakoetxea atzen metroetan oso aurrean joian, 5-6. postuan, baina bere aurrekoak jausi egin ziran zeberioztarra be atzeratuta. Bere aitak BEGITUN kontau dauanez, "sprint masibo" bat burukatu behar izan eban eta atzenean, 36. postuan sartu zan helmugara.

eta atezain bat be dago fitxaketen artean. Andrazkoen Arratia B taldeak ostera abuztuan hasiko ditu entrenamentuak, egunik zehaztuta ez dagoan arren.

Gizonezkoei jagokonez, lehenasunezko mailara igon ostean, Lemoako Harrobik abuztuaren 17an hasiko ditu entrenamentuak, Arratia Ak abuztuaren 12an eta Arratia Bk abuztuaren 17an. Arratia Ak gainera igazko jokalaria askok segiduko dabela emon dau jakitera bere sare sozialetan eta gazte mailan jokatu daben jokalaria batzuk be Arratia Ara egingo dabe saltu.

TXIRRINDULARITZEA

## Garaipen bikotxa eskuratu dau Oskar Garrok

Asier Abrisketa

Txirrindulari igorretarra Atlantic Paracycling Challengeko probetan izan zan bagilaren 27an eta 28an Galizian eta bere kategorian, lasterketa biak irabazi ebazan. Zapatuan errepideko lasterketa jokatu zan Larachan eta Garrok adierazo dau "lasterketa oso on bat" egin ostean lortu ebala garaipena; sailkapen orokorrean be lortu eban postu ona, 25etik 7. eginda. Hurrengo

egunean jokatu zan kronoeskalada erlojupekoa eta orduan be, urtekera oso on baten ostean irabazle izan zan Garro.

Errepideko lasterketak amaituta, oin Espainiako Triatloi Txapelketarako prestatuten dabil Garro, abuztua amaieran Meridan jokatu dana. Oin hilebete hasi zan entrenetan eta holan segiduko dau udan. "Eguna helteako gogotsu nago, ia aurreko urteko denporak hobetuten do-dazan", inoan Garrok BEGITUN.



PELOTEA

## San Fermin torneotik kanpo geratu da Aldai

Asier Abrisketa

Bagilaren 26an jokatu zan San Fermin torneoko finalaurrekoetarako txartela lortzeako atzen partidua, Amaia Aldai eta Arrate Bergara bikotearen eta Goiuri Zabaleta eta Itxaso Erasunen artean. Zabaleta-Erasun izan ziran irabazleak, 22-17, partidua sano gogor baten ostean. Andran zirkuituko atzenaldiko partidurik gogorrenetarikoa izan zan, 80 minutuko iraupenagaz eta bero itzelagaz. Lehenengo zatia oso bardinduta joan bazan be, askoz jota tantu biko alde-

gaz, fisikoki gehien eutsi ebena urten ziran garaile.

Udako binakakoa eta Plazandreak hastear

Garagarrilean, txapelketa biri ekingo deutso Aldaik. Nahia Bertizegaz batera, Eskuz Binakako Udako MLK Txapelketako lehenengo partidua hilaren 5ean jokatu dau, Bermeon 12:00etan. Plazandreak txapelketan barriz, dimoztarra Miriam Arrillagagaz arituko da. Lehenengo partidua garagarrilaren 13an jokatu dabe, Bilboko La Esperantzan.

FUTBOLA

## Andrazkoen Arratia Ak garagarrilaren 29an hasiko ditu entrenamentuak

Erredakzinoa

Daborduko badakigu futbol taldeak noz hasiko diran lanean. Holan, andrazkoen Arratia Ak garagarrilaren 29an hasiko dau aurrendenporaldia. 2. RFEF mailara igon ostean A taldean jokalari batzuk ez dabela segiduko jakin dau BEGITUK; June Uriartek, Olatz Areitiok eta Andrea Martinek futbola itxi dabe eta Amaier Artetek ez dau jarraituko talde arratiarrean berbarako. Arratiak ostera lauzpabost fitxaketa egin ditu, atzekaldeko jokalaria dira

lari batzuk ez dabela segiduko jakin dau BEGITUK; June Uriartek, Olatz Areitiok eta Andrea Martinek futbola itxi dabe eta Amaier Artetek ez dau jarraituko talde arratiarrean berbarako. Arratiak ostera lauzpabost fitxaketa egin ditu, atzekaldeko jokalaria dira

Ordezkariak

**Gure**  
ikastetxeak

Euskalduna  
kalidadezkoa  
herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 428 78 15 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

## ● ANTZEZLANA

**Eraitsi S.L. kale-antzerkia dakar Goitibera konpainiak**

Garagarriaren 3an, 19:30ean egingo da ikuskizuna Lemoako Kulturguneko plazan.

**Asier Abrisketa**

Goitibera konpainiak proposamen sano originala dakar hilaren 3ko arrastrako Lemoara. *Eraitsi S.L.* kale ikuskizunak obretako leku bilakatu dau Kulturguneko plaza eta Saioa Iribarren, Oier Zuñiga, Gaizka Chamizo eta Ander Basaldua antzezleak euren furgonetan ailegauko dira, "behar egitera". Bertan, ume zein helduak barre egiteko moduko

egoera lehegarria sortuko da.

Kale antzerki hau, publikoak espazio publikoaren eta jolasaren inguruan hausnatuteko ikuskizuna da. "Pentsau al dozu inoz ia zelan suntsitzen dan plaza bat? Edo arkitektureaz harago zerk sortzean dauan plaza? Eraitsi S.L. zuen herriko plaza botatera etorri da, Basque Culture Exhibition Forum mega-egiturea eregiteko", dino sinopsiak.



## ● KARTEL LEHIAKETAK

**Areatza, Zeanuri eta Zeberioko jaietako kartel lehiaketak****Asier Abrisketa**

Areatzako Jaietako Kartel Lehiaketa garagarriaren 13ko 14:00etara arte dago zabalik eta lanak udaletxean aurkeztu behar dira, sinatu barik eta gutunazal zarratu baten datuak emonda (izena eta abizen bi, helbidea eta telefono zenbakia). Edozein teknika erabili daiteke eta A3 tamainuan aurkeztu behar da, baina lanak berak 59,6 x 42 zentimetrokoak, bertikalean, izan behar dira. "Areatzako jaiak 2026. Abuztuaren 23tik 30era" esaldia agertu behar da eta epaimahaiak ebatzitzeko irabazleak 150 euro jasoko ditu.

Zeanuriztarrek barriz, umeen zein helduen lehiaketak izango dabez eta lanak udaletxean edo [harrera@zeanuri.eus](mailto:harrera@zeanuri.eus) helbidean aurkeztu daitezke garagarriaren 3ko 14:00etara arte. Irabazleak bozkaketaz aukeratu dira, hila-

ren 10ean eta 11n egingo dira ikusgai pleno aretoan. Lanetan "Zeanuriko Andra Mari jaiak 2026, abuztuaren 14tik 16ra" testua agertu behar da. Irabazle bi egingo dira, 18 urtez azpiko kategorian kultur bonu bat emongo da eta helduenean, euskal produktuen otzarea.

Zeberioko sandonietarako kartelak garagarriaren 12ra arte aurkeztu daitezke, euskarri digital edo paperean, persona bakotzeko bi gehienez. Kartelean "ZEBERIOKO SANDONIAK, Irailaren 2tik 7ra" testua agertu behar da. Lanak sinadura barik eta gutun-azal baten datuak (izena, telefono zenbakia eta NAN kopia) aurkeztu beharko dira. Bozkaketa hilaren 17tik 24ra izango da eta irabazleak 80 euro jasoko dauz, bigarrenak barriz 40 euro. Andrazkoen eta gizonetzkoen artean bazterkeria alboratu eta bardintasuna sustatzen daben kartelak baloratu dira.

## ● JANTZAK

**Tenerifeko El Moral taldeak Arratia bisitauko dau Arantzarteren eskutik**

Emonaldi bi eta jaitxoak egingo dabez hileko bigarren astean; Arantzartekoak hilaren 22an doaz Tenerifera.

**Asier Abrisketa**

Oin hiru urte egin moduan Arantzarte Dantza Taldeak Tenerifeko folklorea ekarriko dau Arratiara. Orduan Guarache taldea etorri zan eta oingoan, Agrupacion Folclorica El Moral da konbidatuko taldea. Garagarriaren bigarren astean zehar egingo dira bertan eta Arantzartekoek Euskal Herriko txoko desbardinak erakutsiko deusiez, Arratian emonaldi bateratuak eta jaitxoak ospatuteaz gainera.

Lehenengo emonaldia hilaren 8an izango da, Areatzan. Tenerifeko folklore taldeek "parrandak" daukiez, irlako musika tradizionala timple, gitara, laud, bandurria, chacara eta marakakaz joteaz arduratuten dan taldeak eta honek kontzertua eskainiko dabe 20:00etan, frontoiko par-

kean. Jantzak ikusteko barriz, San Kristobaleko jaietan egingo da aukerea. Arantzartekoek eta El Moralekoek egingo dabe jantzan hilaren 11n, zapatua, 21:00etan.

**Jaia Igorren**

Zapatuan eskainiko daben jantzaldiaren aurretik, Tenerifekoek euskal giroa ezetuteko jaitxoak

antolatu dau Arantzartek bariku, hilak 10, iluntze-gauerako. Olabarrin hasita, 19:00etan Kittu taldearen musikeagaz girotutako jantza poteoa egingo da herriko zehar. Poteoa amaituta, taloak zerbitzauko dira eta jarraian urtengo da poteoaren bigarren txandea, GOTX elektrotxarangeak girotuta.



## ● AILARAK

**Hile hasikeran zabalduko da Ailarak-Musiktopako tabernea**

Zentro barriaren instalazioak ikusteko bisita gidatuak be badabiz egiten, doban astegioienetan.

**Asier Abrisketa**

Ailarak-Musiktopa Ondarearen Zentro Garaikide barria -antxinako Ekomuseoa- apurka-apurka badoa bizitza hartzean eta laster zabalduko ditu ateak. Arteako Udaletik BEGITUN aurreratu danez, litekeena da tabernea, atzen ins-

talazioak ondo badoaz garagarriaren 2an, eguena, zabalduetea eta beranduenez, hilaren 7an, martitzena.

Gainera, sutearen ostean zaharbarritu dan eraikinaren instalazio gehienak -euskal musika eta jantzearen gaineko erakusketak iraunkorra barne- ezetutera emote-

ko bisita gidatuak egiten hasi dira, izena alde aurretik emon behar izan barik eta doban. Gehienezko 25 personako taldeak egingo dira. Zapatuetan hiru bisita egingo dira: 11:00etan euskeraz, 12:30ean gaztelerez eta 17:30ean euskeraz. Domeketan barriz bi: 11:00etan euskeraz eta 12:30ean gaztelerez.

## ● EMAKUMEA ETA LURRALDEA

# Beste urte batez egingo da Emakumea eta Lurraldea ekimena

Kontzertuak, antzezlanak eta kalean afaldutea dira ekimenaren oinarriak; aurten, hilaren 9an eta 23an.

### Asier Abrisketa

Aurtengoan seigarrenez, Areatzako Udalak Emakumea eta Lurraldea ekimena antolatu dau. Saio bi egingo dira, lehenengoa garagarrilaren 9an eta bigarrena 23an, biak eguen. Bainuetxe osteko landan eroango dira aurrera jarduera kulturalak, 20:00etatik aurrera. Lehenengo antzerki bat, gero norberak eroandakoa afalduteko tarte eta ostean kontzertu bana egingo dira eguen bietan.

Lehenengo saioan, konbidautako antzerki taldea Komorebi izango da eta jantzak, ikusentzunezko edukiakaz fusionetan dituan

ikuskitu bi taularatuko ditu, *Argilunak* eta *Zuloak* antzezlanak. Honen ostean, Ane Goienetxe igongo da oholtzara bere Ane Han taldeagaz batera, *Itzulera(k)* diskoa taularatutera.

Bigarren saioan barriz, lehenengo Trotamundos Konpainiakoak urtengo dira taula gainera euren *Finito-Infinito* obrea aurkeztutera, zirkua eta kale antzerkia buztartuten dituan publiko guztientzako ikuskizuna. Hau amaituta eta afaria eginda, La Mariak gidatuko dau afalostea. Abeslari valentziarrak soinu organiko eta elektronikoak buztartuten ditu, giro hipnotikoa sortuz.



## ● FOLKLORE BIZIAN

# Kuba, Madagaskar eta Euskal Herriko jantzak batuko ditu Areatzak

Garagarrilaren 18an egingo da Folklore Bizian jaialdiaren 39. edizinoako Areatzako emonaldia.



### Asier Abrisketa

Areatza munduko jantzen topagune izango da aurten be Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldeak antolatuten dauan Folklore Bizian jaialdiaren 39. edizinoari esker. Amerika, Afrika, Asia eta Europako nazino ugariatko jantziak heldu dira atzen urteetan Areatzara Folklore Bizian jaialdiagaz eta aurtengo protagonistak, Andra Marikoakaz batera, Kubako Compañía Folclórica Camagua eta Madagaskargo Benja Gasy talde folklorikoa izango dira. Hilaren 18an, zapatua, 20:00etan hasiko da emonaldia frontoian.

Benja Gasy taldea 1998an sortu zan, Madagaskar irlak batzean dauzan kulturen ikerketa baten ostean. Holan, irlako sei es-

kualdeetako musikak eta jantzak batzean dauzan talde bakarra da. Ikuskizunetan, eskualde bakoitzeko musika tresna originalak, orrazkera zein jantzi tradizionalak eta dialektuak buztartuten ditu, honeek munduan zehar erakusteko helburuagaz.

Compañía Folclórica Camagua barriz Kubako Camagüey urian sortu zan 2011n eta Fernando Medrano Vireya da zuzendaria. Maraguan talde entzutetsuaren oinordekoa da eta helburu moduan Kuba zein Karibeko musika eta jantza aberatsak jagon, ikertu eta zabaldutea daukie. Holan, zuztar kubatarreko kanta eta jantza tradizionalak ditue oinarri, irlako adierazpen artistikoak ezetuarazoten ditue, bai eta jatorri afrikar eta hispanokoak be.

## DUNBA

# Búbaleko auzolana: Pirinioetako herri abandonau bat berreskuratzen

**Arratia BHI Institutuko Bizkargi De Jesus eta Ekain Menika ikasleak eta Aitor Okamika eta Urtsule Goikoetxea irakasleak**

Batzutan, ikaskuntzea ez da gelako lau hormen artean gertatzen, ezta liburuetan jasoten be ez. Hori argi ikusi dabe Arratia BHIko DBH 4. mailako 25 ikaslek. Maiatzaren 10etik 15era bitartean, egonaldi erabat berezi eta aberasgarria bizi izan dabe Huescako Búbale herrian, Espainiako Ministerioaren "Hus-tutako herriak berreskuratu eta hezkuntzarako erabilteko" (PRUE-PA) programeari esker. Ikasle arra-

tiarrek "Auzolan" izeneko proiektua aurkeztu eben, garai bateko lan komunitarioaren baloreak berreskuratzeke helburuagaz, eta bertara joateko hautatuak izan ziran.

### Historia eta bizikidetzaren xar-mangarria

Búbale Tenako haranean kokatuta dago, paisaia ikusgarrien artean. 1960ko hamarkadan, izen bera daukan urtegia eregi ebenean, herria hustu eta abandonaua geratu zan. Alabaina, 80ko hamarkadatik aurrera martxan dagoan hezkuntza-proiektuari esker, bertatik igaro diran milaka ikaslek etxeak zaharbarritu eta mantentzen ditue. Horregaitik,

gazteek hara ailegeterakoan ez eben itxitako leku hondatu bat aurkitu; kontrara, etxe normalak irudien.

Esperientzia honen ezaugarri nagusietako bat alkarbizitza izan da. Sevillako IES Herrera zentroko hirugarren mailako ikasleakaz partekatu eben egonaldia. Hasikeran, kulturalki, linguistikoki eta politikoki oso banatuta egoteagaitik talka eta mesfidantza apur bat egon bazan be, aurreretiak apurtuteko aukera bikaina izan zan. Logeletan nahastuta lo egin eben (Casa Aínés bezalako etxeetan), eta laster hasi ziran barreak, abestiak eta istorioak konpartiduten. Sevillako

gazteek euskereagazko jakin-mina be erakutsi eben.

### Eguneroko lan gogorra eta jasangarritasuna

Búbaleko bizitza goizeko zortziretan hasten zan. Talde txikietan antolatzen ziran otorduak pres-tetako eta, ostean, "tajoak" edo mantentze-lanak egiteko. Helburua ingurumenaren ekologia eta taldelana sustatzea zan. Hainbat eginkizun burutu ebezan: bedar txarrak kendu, egurra lortu, landareak landatu eta animaliak zaindu. Hirugarren egunean, ardi moztaille baten bisitea jaso eta ardi bat tris-



kiletako aukerea be izan eben.

Jasangarritasuna funtsezkoa izan zan: bazkalorduan geratzen zan ogia ardiei emoten jakien eta hondakinak konposta egiteko aprobetxetan ziran. Lanaz gainera, tailerrak, inguruko paisaiak ezetuteko txangoak eta denpora liberako guneak be izan ebezan (futbolina edo futboleko zelaia).

Ikasleen balorazioa: Atzen egunean egindako balorazioan, ikasle guztiek oso eretxi ona agertu eben. Askoren ustez, institutuan baino gehiago ikasi eben bertan. Boluntariotzearen bidez euren aletxo itxi eta ingurumenaren zainketearen parte sentidu ostean, argi daukie: errepikatzeke moduko esperientzia da!



## ● AGENDEA

### GARAGARRILAK 1 ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

#### AREATZA

08:00etatik 14:00etara, garagarriaren 13ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea udaletxean.

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

11:00etatik 20:00etara, ugerlekuak egunero zabalik. Urri lehenengoaren 13ra arte.

#### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Urri lehenengoaren 25era arte, bialdu daitezke argazkiak begituren Udako Argazki Lehiaketarako [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

#### ARTEA

Garagarriaren 13ra arte, Communia 3 jardunaldietako janari eta ostaturako izen-emote eta ordainketea [fundaciondeloscomunes.net](http://fundaciondeloscomunes.net) webgunean.

Zapatu eta domeketan, bisita gidatuak Ailarak-Musikotopa bisitetako. Zapatuetan: 11:00etan euskeraz, 12:30ean gazteleraz eta 17:30ean euskeraz. Domeketan: 11:00etan euskeraz eta 12:30ean gazteleraz. Ez da izenik emon behar.

#### BEDIA

10:00etatik 13:00etara, informazio gunea eta liburutegia astelehenetik barikura zabalik. Garagarriaren 24ra arte.

#### DIMA

Garagarriaren 2ra arte, Garena jateko Street Food Gaurako erreserbak doban. 94 631 72 15 telefonoan edo [@garena.fest\\_a](https://garena.fest_a) Instagram kontuan.

Garagarriaren 16ra arte, Garena jateko antolatutako *Osasuna eta errendimendua* jardunaldirako izen-emotea doban. 94 631 72 15 telefonoan edo [@garena.fest\\_a](https://garena.fest_a) Instagram kontuan.

#### IGORRE

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

09:00etatik 13:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Herrian jolasean. Umeentzako astebarruko udalekuak garagarriaren 24ra arte. Txanda bi: 17:00etatik 18:15era eta 18:15etik 19:30era. Izen-emotea hurrengo estekan: <https://labur.eus/herrianjolasean26>.

#### LEMOA

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

11:00etatik 14:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik. Garagarriaren 24ra arte.

11:00etatik 19:30era, ugerlekuak egunero zabalik. Urri lehenengoaren 6ra arte.

Garagarriaren 10era arte, jaietako kuadrillen bazkarirako txartelak (euro 2) eta Gastronomía Lehiaketarako mahai eta aulkien eskaera (euro 1) egiteko epea. Udaletxean.

#### UBIDE

08:00etatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

#### ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHkoentzat, astelehenetik egunero 17:00etatik 19:00etara.

Helduen Jaietako Frontenis Txapelketan izen-emotea garagarriaren 15era arte 696 631 491 zenbakian WhatsApp bidez.

Garagarriaren 3ra arte Andra Mari Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea zabalik. Lanak udaletxean edo [harrera@zeanuri.eus](mailto:harrera@zeanuri.eus) helbidean aurkeztu daitezke. Kategoria bi dagoz: 18 urtez azpikoena eta helduena.

#### ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehen, martitzen eta egunetan liburutegia zabalik.

Garagarriaren 12ra arte, Sandonietako Kartel Lehiaketan proposamenak udaletxean aurkezteko epea. Oinarriak <https://labur.eus/zeberiojai2026> estekan.

### GARAGARRILAK 2

#### IGORRE

17:00etan, auzolana Kiñu Gaztetxea atonduteko; 21:00etan, barbakoa. Edari berezia: sagardoa.

19:00etan, Arratiako Ernairen Elkargunea. Kiñu Gaztetxean.

### GARAGARRILAK 3

#### AREATZA

Ospitalosteko Santo Tomas jaia. 12:00etan, mezea; 20:00etan, parilladea.

#### DIMA

20:00etatik 23:30era, Garena jateko Street Food Gaua (*foodtruck*-ak, musikea, kale artea...). Erreserbak doban 94 631 72 15 telefonoan edo [@garena.fest\\_a](https://garena.fest_a) Instagram kontuan.

#### LEMOA

19:30ean, Goitibera konpainiaren *Eraitsi S.L.* kale-antzerkia. Kulturguneko plazan.

### GARAGARRILAK 4

#### AREATZA

21:00etan, Mamba Beat Club techno gaua. Aldamin jateko.

### GARAGARRILAK 8

#### AREATZA

20:00etan, Tenerifeko Agrupacion Folclorica el Moral-en La Parranda taldearen kontzertua. Aita Añibarro parkean.

#### ZEANURI

18:30ean, *Sexu eta genero aniztasuna: hitz egiten dugunaz eta isiltzen dugunaz* berbaldia (gazteleraz) Fernando Altamira Basterretxea genero eta sexu disidente, Mondragon Unibertsitateko ikerlari eta irakaslearen eskutik. Eguzkiolan.

### GARAGARRILAK 9

#### AREATZA

Emakumea eta Lurralde Zikloa. 20:00etan, Komorebi Produkzioak-en *Argilunak* eta *Zuloak* antzezlana; 22:00etan, Ane Han-en kontzertua. Bainuetxe ondoko landan.

#### IGORRE

17:00etan, auzolana Kiñu Gaztetxea atonduteko; 19:30ean, jolasak. Edabe berezia: daikiria.

### GARAGARRILAK 10

#### IGORRE

San Kristobaleko jaiak. 12:00etan, lehenagoko moduan kantautako mezea; ostean, herriko trikitilariak eta barauskarria AMEren eskutik.

Arantzarte eta Agrupacion Folclorica El Moral Topaketea. 19:00etan, jantza poteo musikatua Kittu taldeagaz Olabarrin hasita; gero, taloak; 22:00etan, GOTX elektrobarangea.

### GARAGARRILAK 11

#### IGORRE

San Kristobaleko jaiak. 12:00etan, Paella Txapelketako izen-emotea; 13:30ean, Igel Txapelketea; 14:30ean, paellen aurkezpena; 16:30ean, III. Goitibera jatsiera; 17:30ean, Tortilla Txapelketako izen-emotea; 18:30ean, bits festa; 20:00etan, tortillen aurkezpena; 21:00etan, Arantzarte eta Agrupacion Folclorica El Moral (Tenerife) taldeen jantzaldia; 23:00etan, On taldearen kontzertua; 24:00etan, Akerbeltz taldeagaz erromeria; gero, DJ Gose ta Sue.

### GARAGARRILAK 16

#### IGORRE

17:00etan, auzolana Kiñu Gaztetxea atonduteko; 19:30ean, karaokea eta mural

margoketea. Edabe berezia: mitxeladea.

### GARAGARRILAK 17

#### DIMA

Garena jateko antolatutako *Osasuna eta errendimendua*. 10:30ean, harrera eta hamaiketako; 11:00etan, Garena, elikadura jasagarria jateko eta ortuan bisita gidatua; 11:30ean, *Osasuna eta errendimendua* berbaldia mahastian Gorka Lupiañezen eskutik. Izen-emotea doban 94 631 72 15 telefonoan. Garena jateko.

#### ZEBERIO

Garagarriaren 24ra arte, Sandonietako XIV. Kartel Lehiaketan bozkatzeko epea. Udaletxean edo galdetegian.

### GARAGARRILAK 18

#### AREATZA

Folklore Bizian. 19:45ean, kalejirea plazatik frontoira; 20:00etan, Galdakaoko Andra Mari, Kubako Camagua eta Madagaskargo Benja Gasy taldeen jantzaldia.

#### ZEANURI

Ipiñaburuko Santiago jaiak. 13:00etan, txupinazoa; 14:00etan, auzo bazkaria; gero, animazioa; 19:00etan, Bola Txapelketea; 20:00etan, txokolatea.

### GARAGARRILAK 19

#### ARTEA

Santa Mañe jaia. 12:00etan, mezea; 14:00etan, Paella Txapelketea; 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketea.

#### ZEBERIO

Upoko jaia.

### GARAGARRILAK 22

#### DIMA

Lamindaoko Madalena jaia.

#### UBIDE

Madalena jaia.

### GARAGARRILAK 23

#### AREATZA

Emakumea eta Lurralde Zikloa. 20:00etan, Trotamundos konpainiaren *Finito-Infinito* antzezlana; 22:00etan, La Mariaren kontzertua. Bainuetxe ondoko landan.

#### ARTEA

Communia 3. 19:00etatik 20:30era, *Kaos sistemikoa, hegemonia-aldaketa eta krisi klimatikoa* berbaldia. Basoa Defendatzaileen Etxean.

#### IGORRE

17:00etan, auzolana Kiñu Gaztetxea atonduteko; 20:30ean, Bidelapurak taldearen kontzertua. Edabe berezia: ardaa.

### GARAGARRILAK 24

#### ARTEA

Communia 3. 10:00etatik 12:00etara, *Erreformismoaren bide laburra* eztabaidea; 12:30etik 14:00etara, *Sanchismoa eta hurrengo hauteskunde zikloa* lantegia; 12:30etik 14:00etara, *Hipotesi sindikalaren inguruko eztabaidea* lantegia; 16:00etatik 17:30era, gune eta taldeen topaketea; 18:00etatik 20:00etara, *Internazionalismoa* eztabaidea. Basoa Defendatzaileen Etxean.

#### ZEANURI

Ipiñaburuko Santiago jaiak. 19:00etan, auzotarren arteko Tortilla Txapelketea; gero, partaideen arteko afaria.

### GARAGARRILAK 25

#### ARTEA

Communia 3. 10:00etatik 11:30era,



## Tenerifeko El Moral talde folklorikoko musikarien kontzertua Areatzan

Arantzarte Dantza Taldeak konbidautu, Tenerifeko Agrupacion Folclorica El Moraleko kideak Arratian egongo dirala baliatuta, Areatzako Udalak taldearen Parranda konbidau dau kontzertua eskaintzera. Garagarriaren 8an, eguaztena, 20:00etan egingo da zuzeneko musika emonaldia Pedro Antonio Añibarro parkean.

Kanarietan, "parrandak" musika tradizionala jotzen daben taldeak dira eta folklore talde guztiek daukie berea, gero honeen erritmoan egiten dabe-ta jantza. Holan, El Moralekoen Parrandako kideak egongo dira Areatzan isa, folia eta malagueña estiloetako musika tradizionala timple, gitarra, laud, bandurria, chacara eta marakakaz eskaintzen.

*Mugimendu sozialen gainbehera eta woke-aren despolitizazioa* mahai-ingurua; 12:00etatik 13:30era, *Zertarako balio digu feminismoak gaur? Klasea, zaintza eta emantzipazioa* eztabaidea; 13:00etatik 15:00etara, gune eta taldeen topaketea; 16:30etik 18:00etara, *Zein da behar dugun ekologismoa? Krisi ekologikoa, mundu-sistema eta antolaketa* eztabaidea; 18:30etik 20:00etara, *Antolakuntza faltatik haratago. Borroak, eskala eta aukera komunak* eztabaidea. Basoa Defendatzaileen Etxean.

Santiago jaia. 12:00etan, mezea; 14:00etan, Marmitako Txapelketea; 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketea.

#### DIMA

Santiago jaia.

#### LEMOA

Arriñoko jaia. 12:00etan, mezea; gero, eskupelota partiduak, mokaua eta Igel Txapelketea.

#### ZEANURI

Ipiñaburuko Santiago jaiak. 12:30ean, mezea; gero, barauskarria eta herriko txistulariak; 16:30ean, Wallas Magoaren magia tailerra; 17:00etan, *Magia Bizi* emonaldia, tailerreko umeen eskutik; 20:00etan, artzai txakurren erakustaldia; 21:00etan, urdai-jana; 21:30ean, erromeria Merhezi taldeagaz eta erifren zozketea.

### GARAGARRILAK 26

#### ZEANURI

Ipiñaburuko Santiago jaiak. 11:30ean, mezea; gero, barauskarria.

### GARAGARRILAK 29

#### LEMOA

Lemoako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

### GARAGARRILAK 30

#### LEMOA

Lemoako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

### GARAGARRILAK 31

#### AREATZA

Saninazioak. Autobusak Pagomakurrera igoteko ugerlekuen ondok.

#### DIMA

Aroztegiatiko saninazioak.

#### LEMOA

Lemoako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

#### ZEBERIO

Undurragak saninazioak. 12:30ean, mezea; gero, barauskarria.

### ABUZTUAK 1

#### DIMA

Artaungo jaiak. 18:30ean, txupinazoa; jarraian, Lourdes Soraluze XVII. Bola Txapelketea; 20:00etan, auzo txixi-burduntzia; 21:00etan, erromeria Kittu taldeagaz.

#### LEMOA

Lemoako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

#### ZEANURI

Otzerimendiko sanjustoak.

#### ZEBERIO

Argiñako sanadrianak. 12:30ean, mezea; gero, barauskarria.

### ABUZTUAK 2

#### DIMA


Artaungo jaiak. 12:00etan, umeen jolasak eta moztorro erakusketea; 18:00etan, herrikirolak; 20:30ean, Tortilla Txapelketea; 21:00etan, Bilbao anaiak trikitilariak eta erifren zozketea; 21:30ean, txokolatea.

#### LEMOA

Lemoako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

# KO MI KI A

Iman  
Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

#### ERIZAINAK ETA

#### GEROKULTOREAK BEHAR DIRA

Erizainak eta gerokultoreak topetan gabiz Dimako egoitzarako. Lanpostuak eskuragarri. Bidali CVa edo WhatsApp bidez jarri hartu-emonetan, edo deitu 627 128 634 telefonora.

#### TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, [axularke@gmail.com](mailto:axularke@gmail.com) helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

#### BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Exploratzailaren marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo

ikusteko deitu: 670 825 753.

#### LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantzarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua: 608 062 592.

#### GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

#### BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI

Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

#### ANTXUME EDO AUMAK SALGAI

Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Areatza Musik and Beer jaialdiko txapela eta boltsea.

Ganzabal Mendi Taldea (Lemoa)  
Iker Garcia (Areatza)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUk 24 urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)



# BEGITU



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



**94 631 72 57**



**ekin@ekinsl.eus**



**Igorre (Bizkaia)**